

Prensa oharra

Nota de prensa



Udalak aurrera egin du Arteleku plaza urbanizatzeko tramitazioan

Proiektu honetarako aurrekontua 1.741.384 eurokoa da eta 5 hilabete eta erdian gauzatu beharko da

Donostiako Udalak Txomin Eneako Arteleku plazaren proiektuko obrak kontratazeko espedientea onartu du. Lizitazioaren aurrekontua 1.741.384 eurokoa da eta obrak burutzeko epea 5 hilabete eta erdikoa.

Eneko Goia alkateak gogorarazi duenez, “egingo den proiektua herritarren parte-hartze prozesu batetik dator, eta horren ideia-lehiaketara aurkeztu ziren 14 proiektuak behin betiko idazketa egiteko oinarri izan ziren”.

Plaza urbanizatzeko proposamena hainbat esparrutan antolatzen da. Espazioa bi eremutan banatzen da, ezaugarri desberdinekin, eta aldi berean Urumea parkea eta auzoko kale nagusia lotzen dituen diagonal baten bidez lotzen dira.

Alde batetik, izaera urbanago bat izango duen plaza bat aurkitzen da, Txomingo bide berriaren ardatzerantz zabalduko dena. Ereku garbi eta funtzioanitz bat sortuko da, auzoko ekimen nagusiak hartzeko. Goiko eskuineko izkinan, ur-jokoak jarriko dira, lurtean iturriak izango dituenak, apaingarri gisa eta udan umeek jolaserako erabili ditzaten. Erdiko gunen hori parterre berde handiak izango dituen eraztun batez inguratutako egongo da, landaredia eta zuhaitzak dituztela, eta horiek egonleku lasaiagoak sortuko dituzte.

Etxadiaren erdialdean, ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetatik urrun eta lorategien ondoan, haurrentzako jolas-toki bat sortuko da, kautxu koloreztatuarekin zolatua, eta estalki txiki bat, gurasoentzako bankuak eta adin desberdinetako haurrentzako jolasak jarriko dira.

Bestalde, komentutik hurbil, inguruaren bigarren espazio librea irekiko da, parkearekin erlazioan dagoen dena batez ere, eta perspektiba altu batetik bere ingurune naturalaren bistaz gozatu ahal izango da. Plaza hau ibaiaren eta auzoaren arteko lotune nagusia da eta ibai parkearen beraren luzapen bihurtuko da.

Erriberaren berezko zuhaitzia etxadiaren goiko eta eskuineko izkinara iritsiko da, eta bi tokien artean landare-jarraitutasuna izango du. Parketik hurbilen dagoen eremuan, adinekoentzako kirol gunen bat eraikitzea aurreikusten da.

Azkenik, etorkizuneko ekipamenduetarako erreserbatutako espazioetan saskibaloiko eta futboleko hainbat jokaleku jarriko dira, auzoko kirol ekipamendurik eza behin-behineko konpontzeko.

Prensa oharra

Nota de prensa

Udal artxiboa

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Gureak Marketing, SLU enpresari esleitzea Donostiako Udal Artxiboko hainbat biltegitako funts dokumentalak, bibliografikoak eta hemerografikoak Mandasko Dukearen egoitza berrira eramateko zerbitzuaren kontratua. Kontratu honek 34.307 euroko esleipen prezioa du eta bi hilabeteko epea gehienez.

Kontratuaren xedea da funts dokumentalak, bibliografikoak eta hemerografikoak ateratzea, jatorrian enbalatzea, lekualdatzea, desenbalatzea eta instalatzea. Funts horiek Mandasko Dukearen Atotxa eraikineko 0. solairuko bost biltegitan jarriko dira.

Adingabeentzako berrezte-neurriak

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Substantziak edukitzeagatik edo kontsumitzeagatik adingabeei ezartzen zaizkien zehapenen ordezkotza neurrien zerbitzua kontratatzeke espedienteak. Lizitazioaren aurrekontua 29.700 eurokoa da eta burutzeko epea urtebetekoa, gehienez urtebeteko luzapenarekin.

Substantzien kontsumoa detektatu den familiei laguntza eta orientazioa emateko zerbitzua da, eta, horretarako, adingabeei eta haien familiei informazioa, orientazioa eta prestakuntza emateko esku-hartzeak egin beharko dira.

Donostia, 2021ko otsailak 23